

TOKIKOM

# karkara

**Oriko eta Aiako aldizkaria**  
2013ko maiatzaren 10a  
336. zenbakia. 24. urtea



## San Martingo marinela

Pakea Bizkaia belaontziaren azken bidaiari izan da Borja Villagran oriotarra. Zeharkaldiaz gainera, bizitzaren nondik norakoez ere hitz egin digu.

**05**

**Oriko kontuak**

Zaindu Karkara eta Berria

**09**

**Kirola**

Kukuarri astea

**11**

**Aiako berri**

Asentzio feria

**25**

**Herritara**

Karen Odriozola

**Beti dago lehen aldi bat edozertarako...**

Bizikleta gaineko lehen abenturarako. Eta askoz gauza gehiagotarako ere bai; erosketa supermerkatuara joan gabe egiteko, adibidez. Iritsi zaizu EROSKI online estreinaltzeko unea. Eta lehen aldia duzula ospatzeko,

**10€**

oparituko dizkizugu online egindako lehendabiziko erosketan.

EROSKI online Supermerkatuan 80 €-tik gorako eskaerentarako ballo du.

eroski.es

**EROSKI** online zurekin

# Zugandik gertu gaituzu Zu ere gertu behar zaitugu

TOKIKOMeko hedabideak gertu-gertukoak gaituzu. Zure inguruan gertatzen dena kontatzen dizugu. Zure hizkuntzan. Zure erara.

Lan ederra da eta, ondo egiten jarrailtzeko, zu ere ondoan behar zaitugu. Makina bat eratarra lagundu ahal diguzu: berriak emanez, albisteak idatziz, harpidedun edo bazkide eginez...

Gertu zaude? Idatzi [gertu@tokikom.com](mailto:gertu@tokikom.com) helbidera eta hitz egingo dugu!

**TOKIKOM**

TOKIKO  
KOMUNIKABIDEEN  
BATERAGUNEA

Hirinet.net

Berlon

Bilbo Hiria Irratia

Prest!

Uk

Ukberri.net

Aikor

Aikor.com

Anboto

Anboto.org

Goiena Papera

Goiena.net

Goiena telebista

Pil-pilean

Plaentxia.com

Barren

Elgoibarren.net

Baleike

Baleike.com

Erlo telebista

Uztarria

Uztarria.com

Goierrri telebista

Galtzaundi

Galtzaundi.com

28 kanala

Karkara

Karkara.com

Antxeta Irratia

Hernaniko Kronika

Kronika.net

Noaua!

Noaua.com

Txintxarri

Txintxarri.info

Aiurri

Aiurri.com

Ttipi-ttapa

Ttipi.net

Xalco telebista

Mailope

Xorroxin Irratia

Guaixe

Guaixe.net

Euskal Herria Irratia

## Oteiza berpiztuari kantari

**1**

Jorgek askotan sentimenduak botatzen zituen zuzen. Sarri haserre sumendi gendun edo ta oihu almazen. Gaur egunean nola gabiltzan kaletan diote ozen ta bizi balitz gaur egun Jorge sumindu bat izango zen

**2**

Hark gizartea moldatu nahi zun bere zizel bere mailu. Kontzeptuetan radikala zen eta umorez kaskailu. Nafarroako Gobernuari bere obra erregalu, gaur poz handirik ez zun izango burua altxako balu.

**3**

Hori egin zun, bai, Gobernuari bere obra ematea. Ikusi balu gaur egunean Barcinak daukan eitea, dena aldrebes egingo luke eta jenioz bete, ta ez naiz harritzen parlamentura pistolakin joatea.

**4**

Pistolarekin joan liteke ezpatarekin bestela, Jorgek hobeto banatuko zun hango sobreen pastela. Depresioa dago nagusi hala ere, dena dela, poz bat badegu iraultza baten atarietan gaudela.

*Jorge Oteiza hil zela 10 urte bete berrian Oteizaren kontzeptu eta pentsamenduetan oinarritutako saioa egin zuten Donostian Andoni Egaña eta Maialen Lujanbiok bertsotan eta Jon Martinez aktoreak Oteizaren paperean. Gizartearekin haserre eta triste zegoela adierazi zuen Oteizak eta horren harira galdera hau egin zien bertsolariei Unai Elizasu gai jartzailak: Pozik egoteko motiborik ba ote daukagu?*

**336**

## karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur Etxea**  
Eusko Gudari, 26  
20810 Orio  
943 831 527

**Editorea**  
Karkara taldea  
kultur elkarte

**Zuzendaria**  
Lore Berasaluze

**Erredakzio taldea**  
Irati Agirreazaldegi,  
Onintza Aiestaran,  
Iñigo Gaiton,  
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa  
eta Idurre Lizarralde

**Publizitatea**  
Iker Gurrutxaga

**Publizitatearen diseinua**  
Iker Gurrutxaga

**Testuen zuzenketa**  
Elizabete Manterola  
eta Rikardo Uzquidun

**Ale honetako laguntzaileak**  
Iban Egiguren,  
Elena Errasti  
Hasier Etxeberria,  
Irkus Fernandez,  
Mirentxu Gozategi,  
Miren Arbil Itxaso,  
Iñaki Lasa,  
Joseba Orella  
eta Talai Mendi M.A.

**Laguntzaileak**  
Zigor Esoain  
eta Iñaki Iturain

**Diseinua**  
Karkara taldea

**Banatzailak**  
Kattalin Bollain eta  
Esti Uranga (Ori) o  
Eli Irureta (Aia)

**Inprimategia**  
Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.050 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berremen daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



HITZETIK HORTZERA

### PUBLIZITATE PREZIOAK

#### Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

#### Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

**Publizitatea kontratatzeko**  
Iker Gurrutxagarekin hitz egin  
(943 831 527) edo  
karkara@karkara.com  
Prezio hauei BEZa gehituko zale

### LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Motondo berreskuratzeari bai!

*Ingurumena eta natur baliabideak ezagutzeko eta bizitzeko garaia da.* Hori adierazi zuen Orioko Bilduk udal hauteskundeetarako egindako udal programan. Motondoko eremua da Orion guretzat ingurumen balioen erreferente garbia. Eta baditugu arrazoiak hori esateko, guretzat ez ezik herri administrazioetatik kanpo eremu horrek dituen ingurumen balioek babestua izan behar dutela erabakita dagoelako; Motondok etorkizunean izan dezakeen izaera bakarra eremu babestua dela erabaki dutelako. Europako Komunitateak Natura 2000 sarean sartzea lehenik, garrantzi komunitarioko leku – GKL edo LIC – izendatzea ondoren eta iaz Eusko Jaurlaritzak Babes Bereziko Eremu – BBE edo ZEC – kategoriatan ematea izan dira behin betiko erabakiak. Eusko Jaurlaritzak 2010ean eta 2012an emandako diru laguntzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektuari eman dion babes instituzional, tekniko eta ekonomikoak erakunde ezberdinek proiektuari adierazi dioten atxikimenduaren adibide dira.

Aurtengo neguan herrian dugun altxor hori ezagutzeko aukera izan dugu Aranzadi zientzia elkartearen eskutik bertara egindako bisita gidatuetan. Elkarrekin horretako adituek azaldu digute Motondoko hezeguneak duen aberastasun ekologikoa berreskuratze eta mantentzeko gauzatu beharreko proiektuaren faseak nola egin daitezkeen. Mahai inguruan ikusi ditugu Motondori buruz eztabaidatzen Eneko Iriarte geologoa, Eusko Jaurlaritzako ingurumen sailburu izandako German Alonso eta Doñanako – Huelva, Espainia – estazio biologikoaren zuzendari izandako Fernando Hiraldo bera. Proiektuaren aldeko apustua egiteaz gain, natur balioen berreskurapenean Orioko herriak eman nahi zuen pausoa mirestu zuten denek.

Orioko Bilduk Motondo hezegune izatea nahi du, Oriok merezi duela uste dugulako. Motondo berreskuratzeak herriari onura ekarriko diola konbentzitu gaude, ingurumen aldetik ez ezik turismoa izango baita indartuta aterako den sektorea. Hondartzaz gain, beste interesgunea da gure herrian erria. Ingaruko herrietatik bereizten gaituena da erria; erria da herri egin gaituena, herriaren sorreraren arrazoiak; Orioren historiari guztiz lotua dago erria – nortasunari, kirolari, aktibitate ekonomikoari, etab –.

Motondoko berreskurapen proiektua Udalez gaindikoa administrazio batek

kudeatu beharko duela ulertzen badugu ere, ez dugu beste inolako oztoporik ikusten hori garatzeko.

Administrazio horietako teknikoei eta politikoei hau garatzeko nahia dute. Egungo egoera ekonomikoan diru laguntzak lortu dira. Eta ez nolana hikoak. Natur baliabideak bizitzeko garaia dute herritarrek, eta horregatik proiektu honen inguruko erabateko aldeko apustua egiteko prest gaude Bildun. ■ **Beñat Solaberrieta.** Orioko Bilduren izenean

## Etxeluze: Bilduren kudeaketa kaxkarraren beste eredu bat

Apirilean izan dugun azken udalbatzarrean, Bilduk darabiltzan modu txapuzeroak salatu behar izan genituen, egunerokotasunean erroturik dauden kudeaketa modu berriak. Okerrena da beren diskurtsoan ikur diren gaietan gauzak ongi egiteko ere ez direla gai.

Oraingoan, zenbait gazterentzat espazio bihurtuko den Etxeluze eraikinaren erosketari buruzko gaian gertatu da. Oinarrian udal ordezkari guztiak ados gauden prozedura izanik, kudeaketa ezin okerrago baten ondorioz, gaia berriro ekarri behar izan dute udalbatzarrean. Oraingoan, EAJren eskaera dela – eta, gaia mahai gainean gelditu da, ez baita nahikoa informazio eta garantia eman proposamena aurrera eramanez ahal izateko.

Etxeluzen gazteen ekintzak egitearen aurka ez da inoiz azaldu EAJ, baina hori guztia modu legal eta ordenatuan egitearen aldekoak gara. Gazte Asanbladak eraikina okupatu zuenetik eman diren pauso guztiak ekintza horiek legalitatea bete ahal izateko emandakoak izan dira, pauso bakoitza serio eta arduraz emanenez.

Udal gobernuaren aldaketarekin, Udaletik at kaleratutako panfleto bati esker, jakin zuen EAJk Etxeluze erostekotan zela Udala. Horrez gainera, *okupazioa* egin zenetik akordioa itxi zen epera bitartean eman zaion erabilera edo alokairu kontzepturen pean ere jabeak diru kopuru jakin bat jasoko zuela publikazio horri esker jakin genuen. Horretaz guztiaz ez zen batzordean informatu.

2012ko abenduan, Obra eta Zerbitzuetako batzordean, erosketa egingo dela *komentatu* egin zuten prezioa aipatu ere egin gabe. Hilabete horretako ubalbatzarrean bertan jakin zuten EAJko kideek prezioa. Gai honi dagokion inongo dokumentaziorik ez zen aurkeztu, ez erabakia hartzeko lagungarri diren

txosten tekniko edo juridikorik, ezta erabilerarako edo alokairuaren inguruko ezer ere.

Abenduko plenoan EAJk eraikinaren erosketaren aldeko jarrera azaldu zuen, dokumentazioa eta informazio guztia helaraziko zitzaigun konfiantzarekin.

Abenduko udalbatzar hartatik hona, EAJk ez du informaziorik jaso. Gaiaren inguruan Udalean galdetu dugu eta ez dugu espedientearen tramitazioaren inguruko azalpen argirik jaso. Horregatik guztiagatik, EAJk Hazienda Batzorde bat egitea eskatu du espedientearen egoera argitzeko eta erosketa prozeduran garantia tekniko eta juridiko guztiak egiten direla azaltzeko. Orduan emango du EAJk bere bozka.

Orietarrek erraz ulertuko dute gure zuhurtasuna gai honetan. Izan ere, prozedura honen hasiera indarkeriazko ekimen batekin izan zen: Etxeluzeren *okupazioa*.

Azkenik, erosketa hau egin ondoren, eraikina Udalaren ondarera gehitzen denean, orduan hitz egin beharko da bere kudeaketaren garapenari buruz.

■ **Orioko EAJ**

## Goiko Kaleko beharrak

Xarma berezia dauka Goiko Kalek. Bisitari asko etortzen da Orioko alde zaharra ikustera: eliza, Pilliku, San Martinerako bidea... Historiaz betetako tokiak dira guztiak; zaindu beharrekoak. Baina gurean zikin samar daude bazterrak. Garbiketa-astindua behar du Goiko Kalek. Dagokionari zuzenduta geratzen da eskaera. ■ **Herritar bat**

## Gizarte-zerbitzuak laguntzeko?

Orioko gizarte-zerbitzuetara jo dut due-la gutxi, informazio bila. Nire harridurarako, ez ninduten hartu ere egin; handik kanpora bota ninduten, Zarautza edo Donostiara joateko esanez. Bultzatzea bakarrik falta zitzaion gizon hari.

Ez dut ulertzen zergatik; batez ere, beren lana entzutea eta laguntza eskaintzea denean. Etika pixka bat behar du gizonak; etika ikastaro trinko batera joan behar luke. Jendeak, oriotarrak, jakin dezala zer nolako gizarte-laguntzailea duen Oriok; zeini ordaintzen dion soldata, lanik ez egitearen truke. ■ **Pedro**



Berriako eta Karkarako ordezkariak. KARKARA

# Zaindu euskara; zaindu euskal prentsa; zaindu Karkara eta Berria

Euskal komunikabideen egoeraz eta etorkizunaz hausnartzeko kanpaina jarri dugu martxan Berriak eta KARKARAK, oriotarren eta aiarren euskararekiko kontzientzia indartzeko asmoz

Euskal hedabideen beharraren gaineko hausnarketa gizarteratzeko asmoz, KARKARAK eta Berriak, elkarlanean, kontzientzia kanpaina bat jarri dugu martxan.

Euskarazko produktuak ere krisi ekonomiko eta sozialean murgilduta dauden heinean, gure ama hizkuntzan irakurtzeak eta idazteak norberari ekartzen diona zer den pentsarazi nahi diegu oriotarrei eta aiarrei: nolakoa litzateke KARKARARIK gabeko Orio? Nolakoa, Berriarik gabeko Euskal Herria?

Unai Odriozolak egindako irudi batekin identifikatutako kanpainaren baitan, herriko txokoetan jarritako bi kartel eta beste horrenbeste bideo ere argitaratu ditugu [berria.info/berriataldea](http://berria.info/berriataldea) eta [KARKARA.COM](http://KARKARA.COM) web guneetan. Azken batean, Ruper Ordorikaren abestiko letra hartu eta *maite duzun hori* –euskarazaintzeko ahalegina eskatu nahi diegu KARKARAZALEEI eta Berriazaleei.

## Mahai-ingurua

*Euskal komunikabideen egoera eta etorkizuna* izenburupean, mahai-ingurua izango da Kultur Etxean, maiatzaren 16an. Berriako zuzendariorde Iñaki Peltarroman; Jabier Zabaleta, Orioko Udaleko euskara teknikari a eta KARKARAREN sortzaileetakoa; eta Urola Kostako Hitzako zuzendariorde Onintza Lete izango dira hizlariak. Rikardo Uzkudunek gidatuko ditu, 19:00etan hasiko den solasaldian.

## Jolasak, lasterketa eta barrikotea

Egun borobila antolatu dugu maiatzaren 18rako, goizean hasi eta ilundu arte. Jolasen eta tailerren bitartez, haurrak kazetaritzara hurbilduko ditugu aurrena, kazetariaren lana gertutik ezagutu dezaten.

Aldizkariaren edota egunkariaren azala pertsonalizatzeko aukera izango dute txikienek. LH3tik gorakoek, berriz, 6 lagunez osatutako taldetan banatuta aritu beharko dute Berriako edo KARKARAKO ale bat osatzen. Argazki kamera taldeak berak ekarri beharko du.

Arratsaldean segituko du egitarauak, binakako lasterketa mistoarekin. Kultur Etxe atzean hasiko da lasterketa –haurrena eta helduena, biak– eta Herriko Plazan bukatuko.

Ondoren, indarrak berreskuratzeko barrikotea antolatu dugu plazan bertan. Urdairak eskainitako sagardoa txotxean edateko eta txorixo-pintxoak jateko aukera aparta izango da. Basoa 3 euro kostako da eta pintxo bakoitza 1,5 euro.

Jan-edana laguntzeko, Julen Alonso eta Maria Lasa arituko dira trikitixa eta panderoa astintzen.

# 2001-2010 urte bitartean jaiotakoak hartuko dituzte udako egonaldietan

Lehen aldiz, 2 eta 3 urte bitarteko haurrak hartuko dituzte Txurumuskiko kideek udako egonaldietan. Horrez gainera, gaztetxoentzako abentura-saioak antolatu dituzte aurrenekoz

Udageraturatzen ari dela-eta, uztaileko eta abuzturako egonaldiak prestatzeari ekin dio Txurumuskiko taldeak. *Uda-txokoa* eta *Gazte-abenturak* aurkeztuta, berrikuntzekin datoz aurrera.

## Uda-txokoa

Bietahiru urte arteko haurrak –2010. urtean jaiotakoak– hartuko ditu Txurumuskiko Uda-txokoan. Jolasekin, abes-

tekin eta jostailuekin arituko dira haurrak bertan eta udaleku irekiekin alderatuz, batez ere, errutinan oinarritutako jarduerak egingo dituzte.

Uztailean, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 12:30era, irekiko ditu atean Uda-txokoak. Ikastolan hartu eta utziko dira umeak.

## Udaleku irekiak

Udaleku irekiak ere uztailean izango dira. Jolasen, tailerren eta dinamika ezberdinen bitartez, ongi pasatzeko aukeraz hobea izango dute haurrek astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 12:30ak arte.

2009. urtean jaiotakoak izango dira aurrerantzat hartuko dituzten txikienak eta 12 urte beteta dituztenak izango dira zaharrenak. Horretaz gain, parte hartzeko baldintzen artean, ezinbestekoa izango da haurrak euskaraz jakitea.

## Gazte-abenturak

Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailatan dauden eta abentura maite duten haurrentzako hamabostaldi berezia antolatu du Txurumuskiko aurrerantzat, estrainekoz. Abuztuaren 1etik 12ra bitartean, 09:00etatik 13:00etara, abenturaz abentura ibiliko dira gazte-abenturako kideak: bizikleta martxak, jolasak, kirolak, mendi irteerak... Hamabostaldiko azken 3 egunak –abuztuaren 13, 14 eta 15–, berriz, aterpetxe batean pasako dituzte.

## Izena-ematea

Maiatzaren 22an, 23an eta 24an, 18:00etatik 19:30era eman beharko dute izena uda-txokoan, udaleku irekietan edota gazte-abenturetan parte hartu nahi dutenek. Izen-emate orriaz eta haurraren osasun txartelaren kopiaz gain, bankuko diru-sarreraren ordainagiria jasoko dute antolatzaileek Kultur Etxean. Txurumuskiko Laboral Kutxan duen 3035 0182 18 1820021770 zenbakian sartu beharko dute dirua –75 euro udaleku irekien kasuan; 85na Uda-txokoan eta Gazte-abenturaren–, haurraren izen-abizenak argi adierazita.

Bestalde, hala nahi duenak, etxera bakarrik joateko baimena eta argazkiak ateratzeko baimena sinatuta utzi ditza ke antolatzaileen eskuetan.

Maiatzaren 31n, 18:00ean izango da Uda-txokoari buruzko bilera Kultur Etxean; 18:30ean udaleku irekiei buruzkoa; eta Gazte-abenturez arituko dira 19:00etan hasita.

## Begirale izan nahi dutenentzat

Egonaldietan begirale izan nahi dutenei taldean lanean aritzeko aukera eskaini nahi die Txurumuskiko. 16 urtetik gora izatea eta euskaraz komunikatzeko gaitasuna izatea beharrezko baldintzak dira deialdira aurkezteko. Horretaz gain, begirale titulua, talde harremanetarako abilezia eta urtean zehar lanean segitzeko prestutasuna izatea eta oriotarra izatea baloratuko dituzte.

KARKARA.COM-en edo Orioko Kultur Etxean dagoen eskaera-orria bete eta txurumuskiko.orio@gmail.com helbidera bidali beharko dute interesa dutenek.



Haurrak udaleku irekietan. TXURRUMUSKI

## LABUR

### Eliza Komunikazioak

Maiatzaren 12an eta 19an izango dira aurrerantzat komunio handia eta txikia, hurrenez hurren, Orion. 25 gaztetxok egingo dute jaunartze handia; txikia, berriz, 49 umek egingo dute. Aian, aldiz, bi jaunartzeak elkarrekin egingo dira, maiatzaren 26an. Hamar haurrek hartuko dute Jauna lehen aldiz eta beste horrenbestek egingo dute komunio handia, kristautasunerako haria sendotuz.

### Kultura

#### Balea elkartearen programa

Urteroko ohiturari jarraituz, zenbait ekitaldi antolatu ditu Balea elkarteak duela 112 urte Orion harrapatu zen azken euskal balea gogoan: *Balea haiek, herri hau* izenburupean, hitzaldia eskainiko du Jon Maia bertsolari eta balea-zaleak maiatzaren 14an. Kultur Etxean izango da saioa, doan. Maiatzaren 17an, ostiralarekin, berriz, umeentzako jolasak egingo dituzte Balea elkartearen ondoko plazan, 17:00etatik aurrera. Horrez gain, txokolate beroa banatuko diete bertaratzen diren guztiei.

### Politika

#### Legorburu aske

2009ko apirilean atxilotu zuten Franzian, Mézières-en-Brenne herrian, Itxaso Legorburu ETako kide izatea egotzita. Ordutik hona lau urte Fleury-ko espetxean eman ondoren, apirilaren 30ean utzi zuten libre. Jaioterrian, Gasteizen, egin zioten lehenengo ongietorria egun horretan bertan, iluntzean. Orion, berriz, maiatzaren 25ean egingo diote harrera. Hainbat urte eman ditu bizitzen Itxasok gurean, eta, besteak beste, Heldu! herri kirol taldean aritu zen bere garaian harri-jaso-tzaile gisara.

# Etxeluzeren erosketari buruzko gaia mahai gainean utzi zuen Udalbatzak

Gaztetxea dagoen eraikinaren gaia, alderdien ezadostasunak medio, beste baterako utzi zuten. Bestalde, aurrerantzean udalbatzarretara aurkeztutako mozioen aurka bozkatuko duela esan zuen Orainek

Ezohiko bilkura egin zuen udalbatzak joan zen apirilaren 30ean eta izan zen zeresana eta eztabaida sortu zuen gairik. Aurreko udalbatzarretako aktak onartu ondoren, gai berriei ekin zieten zinegotziek eta alkateak Jon Carrera idazkariaren esanetara.

Lehenengo Orioko Udalaren Euskararen II. Plan Estrategikoaren indarraldia abenduaren 31ra arte luzatzea erabaki zuten aho batez. Ondoren, Orioko arraunketako eta piraguismoko teknifikazio zentroko kirol medikuntza, fisioterapia eta hipoxia zerbitzuen gestioa eta aisialdi zerbitzua hutsik uztea erabaki zuten aho batez, aurrenekorako hautagairik aurkeztu ez delako; eta bigarrenarako aurkeztu den enpresa bakarrak ez dituelako jarritako baldintzak bete.

## Etxeluzeren erosketa

Etxeluze eraikinaren erosketari buruzko erabakia hartzea zen zerrendan hurrengo gaia. Udal taldea adostasunera iritsi ez zenez, gaia mahai gainean gelditu zen.

Iaz, abenduaren 26ko udalbatzarrean, eraikina 135.975 euroan erosteko erabakia hartu zuten, horietatik 80.000 euro 2012ko udal aurrekontuaren kargura eta gainerako 45.975 euro aurtengoaren kargura; gainera, onartu zuten saltzaileari 21.000 euro ordaintzea salerosketaren azken prezioaren aurrerapen gisa. Jon Carrera idazkariak argitu zuen zein izan zen gaia berriz udalbatzarrerara eramateko arrazoia: *135.975 eurokoa zen prezioa balorazioaren baitan eta horri 21.000 euro gehitu behar zaizkio Udalak ahalbidetutako erabileraren ordain gisa. Beraz, behin betiko prezioa 156.975 eurokoa da.*

Amaitzeko obra eta Zerbitzu batzordeburuak argitu zuen Etxeluzeren jabearekin egindako negoziaketetan 135.975 euroko eraikinaren tasaziotik abiatuta erabaki zutela azken prezioa 156.975 eurokoa izatea. *Aurrekontuetan ere hala jarrita dago, baina diktaminatzerakoan ez genuen kontuan hartu behin betiko prezioa, tasazioarena baizik eta hori argitzeko ekarri dugu gaia udalbatzarrerara, esan zuen Dorronsorok.*

EAJko Noemi Ostolazak galdetu zuen



Gai asko aho batez onartu bazituzten ere izan zen ezadostasunik. KARKARA

erabileragatik tasazioari gehitutako 21.000 euroak alokairutzat hartuko al diren. Horri erantzunez, Jon Carrerak jakinarazi zuen Udalak ez duela etxe jabearekin kontraturik sinatu erabileragatik, beraz, alokairuaren formula ezin dela erabili. Hori entzunda, EAJk gaia

## Etxeluze eraikinaren tasaziotik abiatuta erabaki zuten jabearekin azken prezioa 156.975 eurokoa izatea

mahai gainean uztea proposatu zuen. *Aurrekoan baiezko bozka eman genuen arren, prozedura egokia zela jakiteko idazkariaren bermerik ez dugu jaso. Beraz, eskatu nahi dugu tasazio eguneratua eta txosten juridikoa ikustea eta gaia Ogasun batzordean eztabaidatzea baiezkoa eman aurretik, esan zuen Ostolazak.*

Gaia, beraz, mahai gainean gelditu zen EAJko zinegotziek beren ekarpenaren alde bozkatuta, Oraineko abstentzioarekin eta Bilduko abstentzioarekin.

Bozketaren ondoren aho batez onartu ziren herriko hainbat lur Udalarri lagatzeari buruzko bi puntu, Udalaren ardurapeko izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzea eta Berdintasunerako I. plana. EAJko udal taldeak Gipuzkoako mendekotasunaren arreta hobetzeko planari buruz aurkeztutako idatzia ere onartu zen, baina EAJ eta Oraineko baiezko botoekin eta Bilduren abstentzioarekin.

Azkenik Orioko arraunketako eta piraguismoko teknifikazio zentroa eraikitzeko Eusko Jaurlaritzari diru laguntza eskatzeari buruzko mozio bat aurkeztu zuen Bilduk. Aldeko zazpi botorekin onartu zen eskaria egitea.

## Orainek mozioei ez

Bukaeran Oraineko ordezkariak adierazi zuten hemendik aurrera udalbatzarrean aurkezten diren mozioen aurka bozkatuko dutela, uste dutelako gai horiek batzordeetan aurrez eztabaidatzeko eta adosteko modukoak direla eta aurkezten diren mozio asko alderdikerietan oinarrituta eramaten dituztela batzarrerara.



Aldapeta talde donostiarraren aurka jokatu zuen URSA Oriok ligako azken partida. G. ODRIOZOLA

# URSA Orio taldea Gipuzkoako partaidetza ligako txapeldun

Bost urte eta gero, beren lehen titulua irabazi dute 1996an jaiotako Orioko taldeko neskek. Horrez gainera, oriotarrek parte hartzen duten ZASTeko kadete neskek Euskadiko Txapelketa irabazi dute

Osasuntsu dago nesken kirola Orion eta osasuntsu dago baita ere saskibaloia. URSA Orio junior nesken taldeak Gipuzkoako partaidetzako liga irabazi berri du, eta denboraldia bukatzeko azken partida ere irabazi egin zuen Summa Aldapeta taldearen kontra: 75-43.

Bigarren urtez jarraian Iker Gurrutxagak zuzendu ditu jokalaria eta aurten Irati Isasa zarauztarra izan du alboan taldearen gidaritzapean laguntzeko. Denboraldi hasierako bi partidak galdu eta gero, -9 puntuz Añorgaren aurka eta puntu batez Cafés Aitonaren aurka; bukaeran mailaz igo diren beste bi taldeak izan dira gainontzeko 16 partidak irabaztea lortu dute oriotarrek.

Orokorrean lan ona egin dute neskek eta, talde baten aurka izan ezik, 20 puntutik gorako abantailak izan dituzte norgehiagoka guztietan.

Gauzak horrela, Gipuzkoako errendimendu mailan jokatzeko aukera izango dute datorren denboraldian URSA Orio taldekoek.

## Kadeteak Euskadiko txapeldun

Denboraldiaren bigarren zatian lan ona egin eta gero, Euskal Ligako lauko finala jokatu zuten apirilaren 28ko asteburuan ZASTeko neskek.

Hasiera batean finalean sartzearekin nahikoa izango zela uste arren -Easo finalean izango balitz, bigarrena geratuta nahikoa baitzen-, irabazi beharra zeukaten Espainiako txapelketa sailkatzeko, eta baita egin ere. Partida gogor baten ostean, Euskadiko Txapelketa irabazi zuten eta Espainiako jokatu dute maiatzaren 26tik ekainaren 1era, Guadalajaran.

## Gainontzekoak eretxukun

Orioko beste taldeak ere txukun aritu dira. Bigarren fasean talde guztiak multzoko lehen postuan geratu dira. Horietatik batek, ZAST junior nesken taldeak, Gipuzkoako errendimendu mailako finala jokatu du maiatzaren 11n, 16:00etan, Donostiako Aieteko kiroldegian.

## LABUR

### Arrauna

#### Kadeteak Espainiako txapeldun

Denboraldi borobila egin dute Orio Arraunketa Elkarteko kadeteek. Irabazteko zuten ia guztia irabazi dute aurten: Gipuzkoako Liga, Gipuzkoako Txapelketa, Euskadiko Txapelketa eta Espainiako Txapelketa. Mutilek dena irabazi dute eta neskek Gipuzkoako Txapelketa baino ez ziren izan bigarren. Espainiako Txapelketa burua hotz zutela joan ziren, eta lan ona eginda bi bandera irabazi zituzten. Neskek bost segundoko aldearekin irabazi zuten, bigarren Astilleiro izan zen eta hirugarren Chapela. Mutilek, berriz, sei segundoko aldea atera zioten Vigori eta Robaleira izan zen hirugarren. Emaita bikainak, hortaz, Oriorentzat.

### Sofbola

#### Espainiako Txapelketa Orion

Orioko Bate Bizkorrek antolatuta, kadeteen Espainiako Sofbol Txapelketa jokatu da Orion maiatzaren 10, 11 eta 12an. Estatuko 8 talde arituko dira lehian eta horietatik 4 gipuzkoarrak izango dira, tartean Kiroldgi OBB. Lehen taldea ere txukun ari da eta lider jarraitzen du hiru jardunaldi baino geratzen ez direnean.



# Kukuuarri astea

**B**uela urte batzuk, gogorazten baduzue, mendi hila-betea antolatzen genuen Kukuarriren egunaren jirran. Tartean, besteak beste, hainbat mendizalaren ibilaldietako diaporamak eskaini izan ditugu.

Aurten, ekimen hori hainbeste urtean geldirik egon eta gero, berriz ere mendia inguruko hainbat ekintza antolatzea erabaki dugu Kukuuarri egunaren astean. Ez da erraza gurea bezalako elkarrekin txiki batentzat halako ekimenak antolatzea. Herritarrak mila saltsatan sartuta daude eta ez dute izaten denetara iristeko denborarik.

Gauzak horrela, Kukuuarri astea antolatzeko asmotan, ideia batzuk zebiltzan Mikal Etxeberrriaren buruan bueltaka, eta, hark taldetxo bat osatzeko ardura hartuta, astebeteko egitaraua osatzea lortu dugu. Antolakuntzarako taldean, momentuz, dozena bat lagun elkartzu garen arren, ateak zabalik ditu gurekin elkarlanean aritu nahi duen edonork.

Hasierako taldea osatzeko lanetan betikoa gertatu baitzaigu, genituen telefono eta kontaktuengana baino ez gara iritsi. Beraz, interesa duzuenoi baina iritsi ez garenoi, barkatu.

Egitarauari dagokionez, maiatzaren 20an izango da lehen hitzordua. Iluntzeko 19:00etan hasita, Kultur Etxean, Maite Maiora mendi lasterkariak emandako hitzaldia izango da. Maiora aurten Orioko Mendi Lasterketan emakume

azkarrena izan da. Mendian halako probak egiteko egiten dituen prestaketa lanez eta mendiko lasterketetan izandako bizipenez arituko da hizketan Mendaroko korrikalaria.

Maiatzaren 21ean eta 23an *Autobabesa mendian* deituriko ikastaroa eskainiko dugu Euskal Herriko Mendi Federazioaren eskutik. Bi saio izango dira, bakoitza hiru ordukoa: 18:00etatik 21:00etara. Lehen saioan mendi-teknikari batek gidatuko du ikastaroa eta, bigarren, mediku batek. Mendian aurkitu ditzakegun arrisku egoeretan nola jokatu irakatsiko digute. Doako saioak izango dira eta, ditugun erreferentziei kasu eginaz, oso interesgarriak.

Maiatzaren 22an, Egoitz Zubizarreta eskalatzailer eta suhiltzailer izango da hizlari. Patagoniako *Cerro-Torreko Ferrari* bidean eta *Poincenot* orratzaren *Williams* maldan izandako gorabeherak kontatuko ditu Zubizarretak. Saio hau ere Kultur Etxean izango da, 19:00etan hasita. Hirugarren eta azken hitzaldia, maiatzaren 24an, 19:00etan izango da, Salatxo aretoan.

Bukatzeko, asteburuan bi ekintza egingo ditugu. Maiatzaren 25ean, larunbatean, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara, haurrentzat rokodromoa prest jarriko dugu Karela kiroldegian. Bertan, nahi duten guztiek izango dute eskalatzeko aukera.

Kukuuarri egunean, maiatzaren 26an, tontorrera batera igotzeko proposamena ere badaukagu. Hala, goizeko 09:30ean, Herriko Plazan, elkartuko gara Kukuarrira igo nahi dugunok eta elkarrekin egingo dugu harainoko bidea. Polita litzateke igotzeko asmotan diren herritar guztiak batera joatea! Tontorra, urtero bezala, meza 11:00etan, eta ondoren salda beroa eta pintxoak izango dira guztiontzat. Anima zaitzte mendi astean parte hartzera!

**Antolakuntzarako taldean, momentuz, dozena bat lagun elkartzu garen arren, ateak zabalik ditu gurekin elkarlanean aritu nahi duen guztiak**

## LABUR

### Eskola kirola Finaletan ezin

Bi kirolean jokatu dituzte finalak oriotarrek azken hilabetean eskola kirolean. Finala jokatzen lehenak Lardizabal eskolakoak izan ziren. Zarauzko plaiarotan jokatu zuten LH6ko neskek, baina, zortiarrez, ezin izan zuten Zarauzko La Salle taldearen aurka irabazi. Justuan galdu zuten aiarrek. 1-O. Apirilaren 27an, berriz, Orioko Ikastolako txanda izan zen. Hemen ere LH6ko neskek jokatu zuten finala, kasu honetan eskubaloikoak. Aurrean Zarauzko Ikastolako taldea izan zuten eta 14-18 galdu zuten bukaran. Iñigo Exposito entrenatzailearen hitzetan *nahikoa sari izan da eskubaloiko finala jokatzeria iristea*. Eskola kirolean ere gure herrietako neskek indartsu ibili dira aurten.

### Futbola Denboraldiko azken txanpan

Asteburu honetan bukatuko dituzte beren lehiaketak Orioko Futbol Taldeko jokalariek. Gizonezkoen lehen taldeak liga 3. postuan bukatuko du, okerrik ezean. Aurreko asteburuan beren partida 2-6 irabazi zuten eta datorrenean 10 postu atzerago dagoen Behobiaren aurka jokatuko dute. Dena dela, irabaztea ia beharrezkoa izango zaie postuari eusteko. Jubenilen bigarren taldeak ere urte polita egin du. Lehen mailako igoera fasera sailkatu ziren denboraldiko lehen zatian eta 6 partida irabazi egin dituzte bertan. Adin bereko lehen taldea, berriz, Ohorezko Mailan 7. dago partida baten faltan. Ohorezko mailako kadeteek ere aste honetan bukatuko dute beren denboraldia, Orion. Urtea ahalik eta ondoen bukatzen saiatuko dira Mikel Azkueren mutilak, denboraldi nahikoa pattala egin eta gero. Bukatzeko, kadete nesken taldea ere igoera fasea jokatzen ari da. Une honetan multzoko 3.ak dira eta bi partida baino ez zaizkie geratzen. Norgiegokoa horiek irabaziz gero, 2. bukatzeko aukera dute.

**azkue**  
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio  
Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

**bodegas ERRASTI, S. L.**



Eskualderako banatzailea  
Zudugaral, Getariako txakolina  
Ilagares, ardo gori nafarra  
Bodegas Gailur: Señorío de Laurgain  
Gailur eta Arandegi,  
Arabar Erriosoako ardoak

Eusko Gudari, 46. ORIO • 943 83 03 86 / 03 59 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskoinet.net



KZguneko Enrique Martinez, Aiako Alkate Igor Iturain, Udal Elkarteko lehendakari Amaia Guruzeta eta Lanbideko Federico Gonzalez. KARKARA

## Herriko langabeak prestatzeko egitasmoa jarri dute martxan

Aiako Udalak, Zarauzko Lanbidek, KZgunek eta Urola Kostako Udal Elkarteak esperientzia pilotua egin dute langabeak, besteak beste, teknologia berrien bidez lana bilatzeko prestatzeko

Teknologia berriak erabiliz lana bilatzeko prestatu nahi dituzte Aiako langabeak eta *Jar zaitez lehen leerroan* lelopean esperientzia pilotua bultzatu dute Aiako Udalak, Zarauzko Lanbidek, KZgunek eta Urola Kostako Udal Elkarteak. *Erreminta asko izan arren bakoitza berean aritu da orain arte aldamenekoari erreparatu gabe eta momentu ona da administrazioen arteko elkarlana bultzatzeko*, esan du Aiako alkate Igor Iturainek.

Azken bost urteotan, krisi ekonomikoaren ondorioz, nabarmen egin du gora langabeziak Aian, ia bikoizteraino, eta hori da ekimena martxan jartzeko arrazoia. 95 langabetu daude orain herrian eta 51 ziren 2008ko martxoan. Sexuari erreparatuta, 2008an %43,14koa zen gizonezko langabeen kopurua eta %55,79koa aurtengoa; emakumezkoetan, berriz, behera egin dute langabeek %56,86koa zen 2008an eta %44,21koa aurtun.

Igor Iturainen esanetan, *batik bat kualifikazio baxuko herritarrak -EGB baino ez zuten edo hori gainditu gabeak- asko zirela ikusteak kezkatu gaitu*. Bere

ustez, zailtasunak dituzte lana bilatzeko tresnak erabiltzeko, batik bat teknologia berrien haritik nagusitzen ari direnak: internet, sare sozialak... Prestatu ezean lan merkatuan lehiatzeko aukerarik gabe gera daitezkeenez, bidea erraztea da asmoa; baita kualifikazio altuagoa duten eta internet erabiltzen duten langabeei lana bilatzeko sare sozialak eta tresna berriak ezagutaraztea eta erabiltzen ikastea ere. *Egunen batean lanerako deituz gero prest egoteko*, dio Iturainek.

### Maiatza eta ekainean


Hori dela eta, hiru prestakuntza-ikastaro eskainiko dituzte Aiako KZ gunean maiatzaren amaieran eta ekainean goizez. Saio horietan lana bilatzeko teknikak; lan bilaketarako teknologia berrien inguruko oinarriak; lana lortzeko aukerak hobetzeko gaitasun eta trebetasunak; ofimatika, google tresnak eta sare sozialak; eta ekintzaz landuko dituzte. Lanbiden langabe gisa erregistratutako aiarrek egin ahal izango dituzte ikastaroak eta taldeak teknologia berrietan

duten ezagutzaren arabera izango dira. Toki mugatuak izango direnez, kontuan hartuko dute eskatzaileak langabezian dauden denbora eta adina. Informazio bilera egitekoak ziren asteartean, baina argibide gehiago jaso nahi duten langabeek udaletxera deitu behar dute: 943131144 -Marije-

Federico Gonzalez Zarauzko Lanbideko zuzendariaren ustez garrantzitsua jendeak lanerako jauzia emateko sistemen orientatzea da. KZ gunetan orain arte herritarrak informazioaren gizartera gerturatzeko aritu direla eta aurrerantzean ere langabetuek lehiatu beharra dutelako haiei ere lagunduko dietela dio KZguneko Enrique Martinezek.

### Kompetentzia pertsonalak

Udal elkartearen ekarpena kompetentzia pertsonalak lantzea izango dela azaldu du Amaia Guruzeta lehendakariak. *Kompetentzia profesionali ematen diegu garrantzia, baina beste gaitasun, jarrera eta abilezia batzuk ere landu behar dira: talde lana, porrotaren kudeaketa, auto-konfiantza, aldaketarako prestatzea, emozioen kudeaketa, autozagutza... Enpresek gero eta garrantzia gehiago ematen diete gaitasun horiei pertsonak lanean hartzerakoan.*



Animaliak izango dira ferriako protagonista plazan eta inguruetan. KARKARA

## Asentzio feriaz gain, giza-proba eta harri-jasotze txapelketa asteburuan

Larunbat gauean Orioko, Ergobiko eta Ibarako neskek Gipuzkoako txapelketan lehiatuko dira harriari tiraka; igande arratsaldean Aiako harri berezia altxatuz arituko dira nor baino nor harri jasotzaileak

Maiatzaren 12an izango da aurten Asentzio feria, baina aurten, izango da bezperatik hasita Aiara gerturatzeko beste arrazoirik. Izan ere, maiatzaren 11n, larunbatarekin, I. Bizi Iturri saria izango da jokoan Aiako probalekuan 22:00etan hasita. Giza probetan arituko dira hiru emakume talde: Oriokoa, Ergobikoa eta Ibarakoa. Orioko taldean bi aiar daude: Ane Ezeiza eta Aitziber Lizarralde. Ane Ezeizakesan digunez, *eguna iritsi arte sekula ez da jakiten beste taldeak nola dauden eta zenbat prestatu diren. Gu ahalegindu garen arren, denbora gutxi izan dugu entrenatzeko eta Aiako probalekuan entrenatuta ikusi dugu benetan toki gogorra dela. Hala ere, lan polita egiteko asmoz joango gara. Txanda bakoitzean 500 kiloko harriari tiraka aritu beharko dute zortzi neskek 15 minutuz, zeinek plaza gehiago egin. Gipuzkoako txapelketa izango denez, antolatzaileek izugarritzko jendetza espero dute. Sarrera bost eurokoa izango da.*

### Baserriko gauzak eta artisauak

Larunbateko kirol giroaren ondoren, feria izango da igandeko protagonista. 10:00etatik 14:00etara bitartean plazan, aparkalekuan eta eskolaren atzeko aldean. Barazkiak, fruta, gazta, ezti, ogia, gozoak, loreak, ardoa eta baserriko beste hainbat produktu eta baserrirako lanabesak jarriko dituzte ikusgai eta baita salgai ere azokan.

### HARRI JASOTZE TXAPELKETA

#### Aiako harri bereziarekin lanean arituko dira

Igandean, arratsaldeko, 17:30ean pilotalekura gerturatzen direnek harri-jasotze txapelketa ikusteko aukera izango dute. Aiako harri baldarra altxatzen arituko dira Ostolaza, Izetako hirukotea, Urrutia eta Eizmendi, bakoitzak 10 minutuko saiok eginez. Arrautza itxurako harriak ez du heldulekurik, neurri bereziak ditu eta 115 kilo pisatzen du.

Horrez gain, abere, ganadu, ardi, hegazti eta beste hainbat animalia bitxiren erakusketa ere izango da. Animalia bitxiak, hain zuzen ere Aiako Indagarate-Berri baserrikoak dira.

Artisauak ere egongo dira Aiako azokan, besteak beste: egurra eta larrua lantzen dutenak, jostailu eta panpinagileak, bitxigileak, zapatagileak... tartean Iñigo Izeta aiarra.

### Antzinako lanen erakustaldia

Eguerdian herritarrek belar meta egingo dute plazan. *Azken urteotan antzinako ofizioak edo lan eta bizitzeko moduak baserri inguruan nola ziren gaurkoei erakusten saiatu gara: ardi mozketa -eskuz eta makinarekin-, perraketa, belarra moztu eta eskuz kargatu eta artilearekin koltxoia egin, azaldu du Aiako alkate Igor Iturainek.*

Hori ikusi bitartean oilasko eta txerri pintxoak, sagardoa eta txakolina dastatzeko aukera ere emango dute.

Arratsaldean, harri-jasotze txapelketa ikusteko aukera egongo da eta Asentzio-ko feria jai giroan amaitzeko erromeria izango da plazan Laja II.a eta Unai Narbaiza trikitalariek.

# Shantala, haur masajea

**A**ntzina Indian jaio eta transmititutako masaje teknika berezia da; kontaktu fisikoan, eta manio-bren norantza eta segida zehatzetan oinarritua. Gurasoek, haurtxoen garapenerako beharrezkoak diren baliabideak transmititzen dizkiete. Abantailak, ordea, ez dira haurrentzat soilik!

Ukimenaren onurak:

Ukimenajaioberriek duten lehenengo hizkuntza da, eta momentu horietan bakarra; beraz, funtsezko papera dauka!

Onura emozionalak:

Masajea ematean, haur eta pertsona helduaren artean halako *lotura berezia* sortzen da. Masaje hori, erregulartasunez ematen bada, *estresaren hormona*

gutxitu egiten da. Horrekin batera, odollean *endorfina* kopurua –gorputzak naturalki sortzen duen ongizatearen hormona– handitu egiten da, haurraren ongizate sentsazioa sortuz.

Bestalde, haurrari masajea ematen zaion bitartean, komunikatzeko bestela erabiltzen ez diren tresnak erabiltzen ditugu: begiradak, laztanak, ferekak, muxuak, etab. Horiei esker, erlazio intimoagoa garatzen da.

Onura fisikoak:

Azalak, gure inguruarekiko etenik gabeko informazio mordo bidaltzen dio garunari, momenturo. Nerbio sistema zentralera bidaltzen dira, haurraren azala ukitzen dugunean sortzen diren sentsazioak eta bertan, erantzun mordo sortzen.

Hazkuntzarako hormonaren sekrezioa egiten da.

Odol-zirkulazioa hobetzen da. Giha-rren erlaxazioa eta artikulazioen malgutasuna lantzen du. Ondorioz, haurrak mugimendu gehiago egiteko aukera du.

Azaleko poroak zabaltzen ditu, eta sebo sekrezioa estimulatzen da, haurraren azala infekzioen aurrean indartuz.

Bularreko umearen kolikoentzat ere oso baliagarria da. Maniobra horien bitartez, liseri aparatua inerbatzen duten zainak estimulatzen ditugu, elikagaiak liseritzeko beharrezko hormonak jariatuz, liseriketa prozesua hobetuz.

Teknika hau guttiz terapeutikoa da gurasoentzat eta beren haurrentzat bai *prebentzio* gisa, eta, baita *sendabide* bezala ere.



## Txokoak eta jendea Aerobik taldea

Aurrekoan pilateseko talde bat aurkeztu genizuen: orain musika eta jokia uztartzen dituen aerobikeko taldea da argazkikoa. Goian: Arene, Maddi, Haizea eta Izadi Azkonabieta -irakaslea-. Erdian: Joane, Nahikari, Nerea, Iraia, Maitane, Ibai, Eider eta Naiara. Eta aurrean Itxaso, Bruna, Maialen eta Udane. Egun horretan Irene falta zen.



# 100 URTE ETA

# 1.000 ZORION MONICA!

**M**aiatza omen da urtearen giltza esaeraren arabera eta maiatzaren 4a Monica Salaberria Etxaberen 100 urteen sarraila ireki zuena. pasaiarra, Donibanekoa, da jaiotzez, Oriora bizitzera etorria eta eskola publikoan irakasle aritua. Gaur egun ere Eusko Gudari kaleko bere etxean bizi da Reina zaintzailearekin batera. Udal ordezkariak oroigarri eta lore sorta horiarekin egin zioten bisita urtebetetze egunean. Monicak zein zaintzaile eta lagunek ha-

maiketako eta urtebetetze-tartarekin hartu zituzten etxean. Kantuan ere egin zuen; elizan garai batean abesten zituenak ez ezik, oriotartua izan arren, *sanjuandarrek oriotarrei irabazi* ere kantatu zuen arrauna gogoan.

Zein ote da 100 urte betetzeko sekretua? Monicak zaintzaile finak ditu ondoan, botika gutxi hartzen du eta egunean zerbezatxo bat edo beste. Zorionak Monica!

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA.: KARKARA

## karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

**ARISTERRAZU**  
jatetxea

Andatza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21

**Automóviles ZARAUTZ**

CITROËN ZEPHIRU OPIEL A

toragailu berriak  
eta ez berriak  
eskegin

ZARAUTZ. Tel. 943 13 33 50

Igo zaituz haize berrietara!

**Galerria**

943890416 677149934  
galerria1orio@hotmail.com

# BORJA VILLAGRAN

“HANDITASUNA  
DA ITSASO  
ZABALEAN  
SENTTUTUTAKOA”

Herrian gutxik jakin arren, Pakea Bizkaia belaontziak Usuhaiatik Bilboraino egin berri duen zeharkaldian izan da Borja Villagran oriotar gaztea. Etxean aste batzuk badaramatzen arren, **azalpenak ematean begiek dir-dir egiten diote oraindik**. Popareko haizea lagun, hitz-jario ederra du Borjak.

**TESTUA: IÑIGO GAITON**  
**ARGAZKIAK: IBANEGIGUREN**  
**ETA PAKEA BIZKAIA**

San Martinen bildu gara Borjarekin. Zeharkaldian bidaide izan dituen itsasoak eta haizeak ere keinu egin digute; bata bare antzean nabari daiteke talaiatik, eta, besteak, dotore mugitzen ditu inguruko zelaietako belarrak.

**San Martinen bizita, sukaldeko leihotik itsasoari begira hazitakoa zara.**

Itsasoarekin lehen harremanak hondartzan izan nituen, *paipo*arekin olatu artean. Gazte asko bezala, arraunean hasi nintzen gero.

Nire gogoaren kontra, gurasoek astebeteko bela ikastaro batean sartu ninduten Getarian; bigarren asterako, arra barru-barruan neukan eta bertan geratu

nintzen urte guztian entrenatzen eta nabigatzen.

**Santanderren 5 urte egin zenituen ikasten, eta gero, Valentzian jardun zara lanean, ezta?**

8 urte nituenetik asko nabigatu dut eta egun itsasoarekin dudan harremana oso estua da. Itsasoarekiko lotura horrek Itsas Ingeniaritza Teknikoa ikastera bultzatzen ninduen. Gero, Amerikako Kopa-





rako bi belaontzi egiten ari zen enpresa batean sartzeko aukera suertatu zitzaidan Valentzian, laguntzaile gisa.

Muturreko teknologia nola lantzen zuten gertutik ikusteko aukera izan nuen, belaontzien Amerikako Kopa hori autoen I Formula bezalako zerbait baita. **Egungo panoramarekin, Oriotik atera beharra al du aukera berrien bila dabilen gazteak?**

Nire kasuan behintzat, ate asko ireki dizkit. Ditudan ikasketekin, lana topatzea errazagoa da Frantzia, Ingalaterra edo Mediterraneo aldean, belaontzien sektorean garrantzia handiko lekuak baitira.

Kanpora joateak noski, ahalegina ere eskatzen du. Valentziara zer topatuko nuen jakin gabe joan nintzen, ikasteko gogo handiarekin, eta motxilan arropa baino ilusio gehiago hartuta.

Enpresara iritsi eta nagusiak *hi talde horretan jarri, Borja* esan zidanean ez nekien non sartu, ez eta zer egin! Mundu hura bertatik ezagutu eta muturra sartzeko gogo nuen. Kuriositatea eta ikasteko nahia makulu hartuta, berehala egokitu nintzen enpresara.

**Afizio hutsetik harago, nabigatzeko duzun pasioa eta lana uztartzea lortu duzu beraz.**

Bai, hori da. Nahiko argi ikusten dut jarraitu nahi dudan ibilbidea: estropada transozeanikoetan parte-hartzea dut helburu, ahal bada marinel bezala eta bestela, lehorretik laguntza tekniko eman.

Zorteduna naiz, gurasoek eraman ninduten ikastaro hark itsasora bidea ireki zidalako; ordutik, itsasoarekin kontsultatzen dut hartu beharreko erabaki oro!

**Popareko haizeaz gain, buruan txoro-haizea ere izango zenuen garaiotan gus-tuko lana utzi, eta azken bidaiari baiezkoa emateko.**

Kar kar kar. Ez, ez, argi neukan niretzat lehentasuna Pakea Bizkaia belaontzian zeharkaldia egiteak zuela. Gaztea naiz eta momentuan lotura handiegirik ez



“Kanpora joateak noski, ahalegina ere eskatzen du. Valentziara zer topatuko nuen jakin gabe joan nintzen, ikasteko gogo handiarekin, eta motxilan arropa baino ilusio gehiago hartuta”

“Estropada transozeanikoetan parte-hartzea dut helburu, ahal bada marinel bezala eta bestela, lehorretik laguntza tekniko eman”

“Pakea Bizkaiak nabigazio-espeditio ezberdinak egiten ditu, eta porturatzean, hezkuntza jardueren bitartez bizipen eta esperientziak eskola-umeei azaltzen zaizkie”

“Ushuaiatik Uruguaira nabigatu genuen 9 egunez, eta azkenik, Uruguaitik Galiziara 42 egunez. Hori izan da zeharkaldiko nabigaziorik luzeena. Bilbora iritsi aurretik, Galizian geratu ginen denboralea pasa zain”

“Tripulazioak izan duen elkarbizitza da zeharkaldiko gauzarik onena, 7 lagunon artean izan dugun giza-esperientzia hori”

“Naturarekin konplizitate berezia sortzen da, hitzez azaltzeko oso zaila den harreman pertsonala”



dudanez, horrelako bidaiak egiteko garai onean nagoela pentsatzen dut. Valentziako enpresako nagusiari bidaiarena komentatu, eta hark ere joateko esan zidan, horrelako aukera asko ez direla izaten eta aprobetxatzeko.

**Pakea Bizkaia belaontzian egin berri duzu zeharkaldia, proiektuaren azken etapan parte hartuz.**

Hori da, nik etxera itzultzeko etapa osatu nuen: Ushuaiatik Uruguaira nabigatu genuen 9 egunez, eta, azkenik, Uruguaitik Galiziara, 42 egunez.

Hori izan da zeharkaldiko nabigaziorik luzeena. Bilbora iritsi aurretik, Galizian geratu ginen denboralea pasa zain. Denera, 7.000 milia inguru egin ditugu nire etapan.

**Ingurumenarekiko errespetu eta sentsibilizazioan laguntzea du helburu Pakea Bizkaia proiektuak.**

Nabigazioa eta ingurugiroaren errespetuaren arteko lotura ezagutaraztea da xede nagusia. Nabigazio-espeditio ezberdinak egiten dira eta, porturatzean, hezkuntza jardueren bitartez bizipen eta esperientziak eskola-umeei azaltzen zaizkie.

Giza jarduerak ozeanoetan duten eragin negatiboa eta naturaren edertasuna erakutsita, gizartea sentsibilizatzeko bidean bere hondar aletxoak jarri nahi du Pakea Bizkaiak.

**Kutsadura edo zikinkeria arrastoekin ere egingo zenuen topo, ezta?**

Begiz ikus daitekeen zikinkeriaz gain, bada kezkarriagoa den beste zerbait. Nire aurretik egin zuten etapan, tripulazioan bazen biologian aditu bat eta hark egindako analisisien arabera, ikusezinak diren plastiko partikulak aurkitu zituzten itsasoko uretan.

Partikula horiek arrainen tripetan amaitzen dute, eta arrainek, gure etxetako hozkailuetan.

**Metro karratu gutxian, 7 lagun egon zarete 42 egunez lurrik ukitu gabe...**

Tripulazioak izan duen elkarbizitza da zeharkaldiko gauzarik onena, 7 lagunon artean izan dugun giza-esperientzia





hori. Itsasoan gauzak okertzen badira asko oker daitezke eta horren kontzientzia izanik, indar kolektibo hori da zailtasunei aurre egin eta bidaiarekin jarraitzen lagunduko dizuna.

Arropaz aldatzea ere zaila izan daitekeen balditzetan, albokoarekin mokoka hasi edo haserretzea astakeria izugarria litzateke.

#### **Eguneroko ekintza arruntak sarri aldrebestuko dira itsasoan, ezta?**

Aldrebestu gabe ere, lehorrean baino konplexuagoak izan ohi dira. Lo kuluxkatik esnatu eta bat-batean kabinan oker-oker eginda zaudela ohartzen zara, belaontzia bira bat ematen ari delako, adibidez. Arroparekin ere, kanpora ateratzeko *buzorik* handiena jantzi behar baduzu... hankaz gora ez erortzearekin nahikoa lan!

#### **Lotarako, zaintza txandak egiteko... nola antolatzen zineten?**

Unai Basurko buru izanik, beste sei lagunok 3 talde osatu genituen binaka jarrita. Egunaz dugun 24 orduko kontzeptua albo batera utzita, talde bakoitzak 3 orduko zaintza-txandak egin behar zituen. Txandan zehar, ardura minimo batzuk dituzu: lema behar den bezala eramanez, belaontziko zati guztiak ondo daudela ziurtatu, begi bat beti itsasoan mantendu badaezpada...

Hasierako egunetan, nire buruari galdetzen nion *orain txanda bukatuta, zer egin behar diat datozen 6 orduetan?* Eguna aurrera joanda, geroz eta errazagoa egiten zitzaidan denbora betetzea: kuluxka bat, irakurri, xakean jokatzeko ikasi, tertulia ederrak izan...

#### **Bakarrik helduko al zenioke erronka berari?**

Baietz uste dut. Momentuan agian ez, baina entrenamendu eta prestakuntza egokiak eginda, erronka ederra litzatekeelakoan nago.

#### **Orio puntu oso txikia da mapamundian; zuen belaontziak oraindik ere txikiagoa behar zuen itsaso erdi-erdian...**

Hemen bizi garen bezala, buruan milaka kontu izan ohi ditugu eta galdu egiten da



naturaren menpe egotearen pertzepzioa. Itsaso erdian zaudela natura da ikusten, usaintzen eta arnasten duzuna eta bere aldarte edo kapritxoaren menpe egote horrek, txikitasuna sentiarazi diezazuke.

Nire kasuan, askatasuna da milioika tona ur-gaziz inguratuta sentitu dudana; txikitasuna baino, handitasun sentsazio paregabea.

#### **Naturarekiko begirune hutsa baino gehiago behar du itsasoan haizearen menpe dabilenak.**

Zeharkaldian itsasoari, haizeari edo auskalo zeri askotan *hitz egin* diot. Gertuen duzun kostaldea nabigatzen 7 egunera izanik, itsasoari, haizeari, eguzkiari edo auskalo zeri *nik errespetatzen haut, mirresmena diat, mesedez, jarrai ezak horrela, atsegin, eta ondo konponduko gaituk...* bezalako kontuak esaten dizkiozu.

Konplizitate berezia sortzen da, hitzez azaltzeko oso zaila den harreman pertsonala. Surfari edo mendizaleek ere sarritan aipatzen dute harreman hori.

#### **Egunkari ezagun batean garaiotan, itsasoa egoteko leku ederra da zenion.**

Etxe-kaleratzeaz, langabezia, ustelkeriaz... etengabe hitz egiten den garaiotan, itsasoan zaudela lehorrean geratzen dira kontu kezkarri horiek. Horretarako ez duzu ozeano erdiraino joan beharrik, piraguan Anarriraino gerturatu ere, askatasun sentsazio hori senti daiteke.

Niretzat, itsasoa beti da egoteko leku ederra, paregabea; are gehiago gaur egun gizarteak duen aldarte negatiboa kontuan hartuta.

#### **Krisiak behintzat, ez ditzala gure ametsak ukitu.**

Gutziz ados. Jendea egoera benetan kezkarrietan bizi da, eta kontuak ez du itxura onik.

Krisi ekonomikoa, ordea, norberaren zorientasuna lortzeko bidean oztopo bat gehiago bezala ikusten dut; jomuga non duen argi dakienak, hori lortzeko gogor saiatzea besterik ez zaio geratzen.

Ametsen alde borrokatzea da bizitzari benetako zentzua emateko ardatzetako bat.

#### **Julio Villarrek hauxe dio, munduari itsasoz buelta eman zioen 1968an hasitako bakarkako bidaiaren: ederra gaua, ederra... lokartzen uzten ez didana.**

Itsasoan inongo argi artifizialik gabe zaudela, izarrek zeruan duten indarra izugarria da.

Askok galdetzen dit ea bidaiaren zer izan den gehien harritu nauena, zein irudi geratu zaidan buruan. Niretzat zerua izan da txundigarriena, orduak eman ditut txoratuta gora begira. Eguzkia sartzen ikusteak, bi orduz zurekin nabigatzen duen izurdea, ozeano erdian topatzen dituzun txoriak... horiek dira nabigazio egunetako pizgarriak, itsasoko egunak alaitu eta bidaiarekin jarraitzeko ilusioa mantentzen laguntzen dutenak.

#### **Eta? Topatu al duzue itsasoan bueltak dabilen marinel bakartirik?**

Badugu anekdota txiki bat, bai. Urte batzuk atzera Unai Basurkok bakarka egin zuen estropada batean, gauetan marinel bakarti batekin hitz egiten zuen irratiz. Sarritan hitz egitearekin, sekula elkar ikusi ez arren, lagunak egin ziren.

Itsaso zabalean nabigatzen gentozela, Unai askotan hitz egiten zuen harekin eta ohartu zirenerako, nahikoa *gertu* ginen elkarrengandik –*gertu* hitzak, itsasoan har dezakeen esanahia kontuan hartuta...–.

Egunak pasa ahala, bi belaontziak geroz eta hurbilago geunden, posizio jakin bat adostu eta topatu ginen arte. Zorionez, momentuko baldintzek belaontziak elkartzen utzi ziguten; itsaso zabalean ez da erraza hori, balantzekin enbarkazioak elkarren artean talkaka hasi baitaitezke.

Unai eta marinel bakartiak lehen aldiz ikusi zuten elkar, hura momentua! Malagakoa bera, orain dela 10 urte hasi zuen bidaiak. Haize makalak tarteko, justu samar zebilen: ura edateko euria jasoz, janariz ere urri xamar, motorra matxuratuta...

Gure belaontzian elkarrekin afalduta, faltan zituen gauzak eman genizkion bere bidaiarekin jarraitzeko. Diru gutxiarekin, ametsak benetan bete daitezkeela erakutsi zigun gure lagun andaluziarrak!

#### **Bukatzeke, zer esaten zizun Oriok kanpoan zinela?**

Kanpoan zaudenen, norberaren herriko edertasunak argiago ikusten dira, hemen gaudela baloratzen ez ditugun gauza askok dir-dir egiten dute urrutira. Leku pribilegiatua bizi gara!

#### **Mila esker, Borja!**

# Desilusioa

**L**ez da seinale ona izaten bizitzan ezerk ilusiorik ez egiteak. Denok eduki behar ditugu aurrera jarraitzeko heldulekuak bidean erori nahi ez bada behintzat. Nahiz eta ni ez naizen horren adibide garbiena, aspalditik neukan barruan gustura egingo nukeen gauza bat: Ollagorran kontzertu bat antolatzea, alegia. Eta orain izan den belaualdi aldaketa aitzakiatzat hartu eta jarri genuen data. Akaso, gure herriko txoko guztietan bezalaxe, Ollagorran ere nire gustuko musikak ez duelako leku handirik izan-edo, banuen ilusio berezia gau horretarako.

Iritsi zen eguna ere, apirilak 19, ostirala hain justu. Pixkanaka-pixkanaka joan ziren musikariak iristen. Sagardotegi estiloko afaria egin genuen; ez menuagatik, tente afaldu genuelako baizik, eta lagun guztiak iritsi zirenean eman genion hasiera kontzertuari. Ezusteko bisita izan genuen lehen taldeak seigarren kanta jo zuenerako. Bertan ginen gaine-

rakoak bezala, horiek ere beltzez jantzi-ta zetozen. Baina horiek lagunak izan ordez, *bizilagunek* deituta omen zetozen. Itxuraz ez zitzaien *Can't explain* gustatu eta baxuago jartzeko edo kontzertua bertan behera utzi beharko genuela esan ziguten. Zazpi urtean arazorik izan ez, eta despedida kontzertuan arazoak

izatea tristea izango zenez, eta baxuago jartzea ezinezkoa, bertan behera geratu zen kontzertua; eta, beraz, akabo ilusioa. Behintzat emanaldiak gaueko hamabiak arte eta sei kanta irauin zituen eta gaitzerdi.

Hasieran, amorrua eman zidan arren, hotzean pentsatuta, batzuk ez daudela gustura besteak gustura ikustean ez konturatzea nire errua izan zen. Baita ere Orio lotarako herria dela eta gauez isiltasun osoa mantendu behar denaz ez jabetzea, bertako herritarrak edozerk molestatzen ditu-eta. Bizilagunak ez direla hain lagun ez konturatzea, benetako lagunak gauzak aurpegira esaten baitituzte eta ez mezularien bidez. Baina tira, eroriz ikasten omen da oinez eta hurrengorako badakit.

A, antolakuntzaren partez, dagokionari gogoratu hurrena besteen etxean sartzeko baimena eskatu behar dela, eta, oraindik, sarrerako 8 euroak ordaindu gabe dituztela.



**Zazpi urtean arazorik izan ez, eta despedida kontzertuan arazoak izatea tristea izango zenez, eta baxuago jartzea ezinezkoa, bertan behera geratu zen kontzertua**

**BERME Aholkularitza S.L.**  
Zerga eta lege aholkularitza

- ENPREKONTRATUAK
- ENPREKONTRATUAK
- ENPREKONTRATUAK
- ENPREKONTRATUAK
- ENPREKONTRATUAK

Julio Mendizabal Etxebarri  
m. 602 63 09 23

Donostia 11/101  
48101 Donostia  
C.N.I. 11/101  
e-mail: julio@bermeahol.com

**Carmen eta Txomin**  
ARRANDEGIAN

943 83 05 37 / 943 83 27 47

**INDO**  
Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

**uranga**  
autozerbitzua

**Aliprox**

Eusko Gudari kalea 13-15  
ORIO  
943 83 38 75

**Gabon**  
TABERNA

plater kokotxak dapintxoak

Tfnua: 943 83 06 09

**ITSASADARRA, S. L.**  
Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artekaria  
finka administratzailea  
gestoria  
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 98 itsasadarra@itsasadarra.com  
Ibaitzondo-4, beheak. 20810 Orrio

**GARMENDIA**  
INMOBILIARI A - AHO LKULARITZA - ASEGURUAK

Ibaitzondo, 1  
Tel: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

**PIZZERIA**

**KALETA**

ARRANTZALE KALEA, 10



**LURDES**  
ARRAZKESI



Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Ille apaindegia  
**MARIJO**

Neska eta mutilentzat



Eusko Gudari, 8 - bajo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**MIRANDA**  
APOTE LARAK...



larima, ate, leiho, eskaifera...  
behar diren arotz lanak  
agintu ditzituzu

Udazketa bidex. 1 +660 42 32 70 - ZARAUZ

**PERTSIANAK**  
A K O M A Z



Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK



TEL/F - 943. 572083  
FAX - 943. 571190  
i.asenjo@hotmail.es

INES ASEÑO  
IBAI ONDÓ 13  
20810 ORIO

**Sagasti**  
LEIHOAK



ROBERTO SAGASTI

Tf / fax: 943 13 00 77  
sagastileihoak@telefonica.net  
Arrantzaile kalea, 65  
20810 Orio (Gipuzkoa)

*Lizaso*  
dekorazioa



Eusko Gudari, 48  
Tel. 943 83 07 84 Fax: 943 24 87 15

**LORETXU** JATEKETA



Eusko Gudari, 18 Tel. 943 83 00 07

**HAIZE BERRI**  
taberna-jateketa-kafetegia

Plater konbinatuak,  
bokatik,  
hamburgerak,  
ratxoak,  
eguzko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!

Calle Lardizabal, 6. 1.º. 48100 Orio. 943 83 00 07

**LUXARBE**  
igeltseritza

Igeltseritza orokorra,  
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu  
konpromisorik gabe

Lan txukuna  
eta merkea

Tfnor: 943 83 59 00

**TANATORIO ZARAUZ**  
EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

\* Donostia eta probintziako ospitaleetan  
\* Aldiaroko zerbitzua  
\* Belatorio gelak  
\* Koroiak, eskalak, tranitzioak...

Araba kalea, 35 Zarauz  
Tel: 943 80 49 37 / Fax: 943 89 49 41  
e-mail: harnepi@harnepi.net

**KOLON TXIKI**  
antzerketa  
jateketa



Herriko Enparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

**Zaragueta**  
Herri Eskola Orio



telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@herrikuntza.net

**Orioko**  
Herri  
Ikastola



Guraso Kooperatiba  
ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
orio@ikastola.net  
www.oriokoikastola.net

FISIOTERAPIA Gaituraz Arinduz eta Nabil a Mirenen  
MUTURDUNISTA Gaituraz Arinduz

**sinergia** investigacion  
fisioterapia



ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

**IGLESIAS**  
SARRAILAGILEAK

24 ORDUKO  
SARRAILAGILEAK

www.IGLESIASARRAILAGILEAK.COM

Javier Iglesias Fernández  
637 723 308  
iglesias@arrailagileak.com  
20810 ORIO



**MANTEROLA S/L**  
ESFERA ETA RETENTZIOKO  
BALBULAK



Santiago auzoa - 18 probintzia  
Tel. 943 838 703  
Fax 943 136 834  
E-mail: manterola@cuabakel.net  
20810 ORIO - GIPUZKOA

Esferako balbula  
ACHOR kalitate dutragiduna

# Gaia emanda Sendagaien kontsumoa

Askoren iritiz, gorputzeko minak sendatzeko nahikoa da botikak hartzea. Ondorioz, sendagai kontsumoa neurririk gabe hasi da. **Botika asko hartzen al dugu?**

## Botika kontsumoa eta arazoak

Sendagileek agindutakoak, farmazialariak aholkatutakoak edo norbere kabuz hartutakoak bereizi behar dira botiketan.

Bizi garen kontsumo gizar-tean, askotan, medikamentuak kontsumorako ondasun gisa hartzen ditugu, osasunaren kalterako izan daitezkeela ohartu gabe. Gaixoak botika egokia hartu behar du, dagokion dosi eta denboran eta kosturik txikienarekin.

Gaur egun, jende asko uste du botika gehiegi erosten duela eta etxeko botikinak gainezka daukela. Batzuetan ez dago ez kontrol ezta orekarik ere beharren eta kontsumitutako errezetan artean. Botika bila errezeta gabe etortzen direnak edo etxean asko dituztela eta jasotzen ez dituztenak daude.

Errezeta elektronikoa bidez, orain arte antzematen zailak ziren huts informatikoak –bikoiztasuna, interakzioa...– saihestuko dira.

Ospitaleratzen %30a botikek eraginak dira. Gastu handi hori da administrazioak aurreztu beharrekoa, eta ez kopagoa erabiliz konpondu nahi duena. Beharra, eraginkortasuna eta segurtasunarekin lotzen dira arazoak. Baliteke gaixoak beharrik gabe botika erabiltzea; edo behar duen botika ez hartzea. Medikamentua beharrezkoa bada eraginkorra izan behar du, bestela baliteke dosi egokia hartzen ez delako izatea, edo beste botika batekin batera hartu eta indarra kentzea.

Sendagaiak, beharrezko eta eraginkorra bada, segurua ere izan behar du. Ez bada, baliteke, gehiegizko dosiak toxikotasunen bat edo aurkako erreakzioa eragin izana. Hori gastua da administrazioarentzat gaitza luza-tzeaz gain, gaixoa ospitaleratu dezaketelako. Arazoak konpondu eta diru asko aurreztu daiteke administrazioaren politika gaixoen botika-terapia jarraituz bideratuko balitz. Sendagile, botikari eta gaixoen arteko lotura eta informazio trukea litzateke egokiena, gizar-teari eskaintzeko moduko zerbitzua.

Osasun Ministeriotik bultzatutako politiken eta Osakidetzako gestioaren eraginez, kontsumo-arekin lotzeko hainbat kontu daude. Euskadin fakturatu-tako errezetak eta errezeta bidezko batezbesteko gastuak jaisten ari dira Gobernuak dekretuak kaleratzen baititu prezioak jaitsiz. Behera egin du errezeta gabeko botika libreen salmentak. Botika generikoen merkatur gora doa, baina marka edo patentadunena, berriz, behera.

Kopagoa gainean da eta gaixoei oinarrizko botika gutxiago erabil ditzaketenez terapia haustea ekar dezake, baita berriz gaixotzea edo arazo gehiago izatea ere. Ondorioz larrialdietara jo eta ospitaleratzeak gehiago izango lirateke Osakidetzaren gastuak handituz.

**Iñaki Lasa**  
Botikaria

## Botika eta terapia naturalak

Ehiago edo gutxiago, beharrezkoen arabera, noizbait guztiok hartu ditugu sendagaiak, kimikoak, naturalak, farmaziakoak zein belar-dendakoak, etxe guztietan badago bat behintzat.

Eztabaida ere ez da falta sendagai sintetiko edo kimiko zein naturalen artean. Batzuk besteak baino hobekak eta hauek lehenak baino kaltegarriagoak ote diren. Garrantzia gehiago ematen zaio sendagaiari, gaixotzera eramantzen gaituenari baino.

XVI. mendean Paracelso alkimistak landareen espirituari buruz idatzi zuen, landareek duten bizi-energia eta horiek arazo edo gaixotasuna sustraitik sendatzeko duten ahalmenari buruz. Egun, sendagaietan bizi-energia hori topatzea ia ezinezkoa da, sendagai guztiak baitaude modu batera edo bestera manipulatuta, eta prozesu ho-

rrietan, sendabelarrak estraktu bihurtzean adibidez, Paracelsok zioen espiritua indarririk gabe uzten dute, oso ahul eta sendatzeko energiarik gabe.

Beraz, eztabaida horren abiapuntuak beste galdera bati erantzun beharko lioke: gaixotasunaren sorburura joan eta sendatzeko gaitasunik ba al dute sendagaiok, hau da, gaixotzera eramantzen gaituen hori aldatzeko gaitasunik ba al dute?

Osasun osoa izatea galarazten duten blokeoen sorburura joan eta benetako terapia egiteko beharrezkoa da zelula-memorian eragingo duen metodoa eta sendagaia izatea.

Gaixotasunetik ateratzeko ezinbestekoa da aldaketa hori, gizabanakoa barne gogoarekin bat izan eta bizitzako xedea gauzatu dadin. Horrela gizakiok ditugun galdera askori erantzuna emango genieke.

Bizitzako xedea bilatzea da gizakiok dugun erronka nagusia, bizi-energia edo espiritua mantenduz bertara hurbilduko gaituen metodoa aurkitzea da gure lana.

Azken urteotan gorakada nabarmena izan dute terapia naturalak, eta egun mundu guztiko terapiak ditugu eskura. Euskal Herrian ere badi-tugu bertako metodo eta terapeuta bikainak, isilean, egunero, beren lana egiten dutenak.

**Irkus Fernandez**  
Hirutasun esentzien terapeuta



Olaia Askasibar zuzendaritzapean aritu ziren bandako 40 musikariak. ELI LASA

# Plaza bete musika eta aiarrek gehiagorako irrika

## Kritika Danbolin Musika Eskolako banda

**Tresnak:** saxofoia, klarineta, flauta, tronpeta, perkusioa eta pianoa

Ingande eguerdia Aiako plazan, udaletxe aurrean, Danbolin musika eskolako 40 musikari tresnei soinu ateratzeko prest eta eguraldi ona lagun entzuleak ere makina bat: Oriotik joandako ikasleen gurasoak, Aiako helduak, ume aiarrak aita eta amarekin, baita mezatako kantuak entzun ondoren, elizatik bestelako abestiekin berriak goxatzera irten zen jendea ere.

Estreinako aldia zuten Orioko bandakoek Aian, beraz, berria izan zen aiarrentzat aukera, aprobetxatu zutena gainera, izan ere giro polita sortu zen musikari eta entzuleon artean.

Kontzertua hamabietan puntuan hasi zen eta egitarauan pieza klasikoak zein gaur egunekoak zeuden, euskaldunak eta atzerritarrak.

Abesti lasaiekin hasi zuten emanaldia eta pixkanaka gero eta biziagoak entzun ahal izan genituen kontzertua pot-pourri batekin bukatzeraino. Plazara gerturatutako aiarrak eta etxeko entzuleak gustura ginen nonbait, izan ere, *beste bat* eskatu ge-

nuen txalo artean. Musika-riek azken pieza errepikatuz erantzun zuten.

Kontzertua kanpoan izan zen arren, plaza etxez inguratuta dagoen arren, akustika ona zegoen, era horretako musika entzuteko aproposa.

Gertukook badakigu musika eskolako edozein emanalditan bi pieza jotzea baino zer bait gehiago dela Aiako kontzertua musikarientzat, baita horrek eskatzen duen prestaketa ere. Egindako lana, ordea, ez da alferrikakoa izan eta maiatzaren 17an, banda Orioko plazan arituko da 19:30etan.

**M.A. ITXASO ETA E. ERRASTI**

**Ikasleak idazle**  
Hasier Etxeberria

## Arrauna

**O**rion arrauna da kirol-lik garrantzitsuen eta indar gehien duena herriko jendearen artean.

Denok dakigun bezala arraun elkartearen egoitza berri dute Orion ia 6.000.000 euroko kostuarekin. Nire ustez gehiegizkoa da diru hori guztia ordaintzea krisi garaian. Gainera, instalazio horiek erabiliko ez dituen jendeak ere diru hori ordaindu du.



Ez da hori bakarrik. Instalazio horiek garbitzea eta ura eta argiaren kostua ere garrantzitsuak izango dira.

Nire iritziz arraun elkartearen eraikina gehiegizkoa da, bazegoen gauza gutxiago jartzea. Gimnasioa, aldagelak eta ontziak gordetzeko tokia beharrezkoak direla jakina da, baina gainontzekoa soberan dagoela pentsatzen dut nik. Dena dela instalazio berri hauek erabiliz arraunean gauza asko irabaztea espero dut.

**Gehiegizkoa da diru hori guztia ordaintzea krisi garaian. Gainera, instalazio horiek erabiliko ez dituen jendeak ere diru hori ordaindu du**



**RAMIRO**  
argazkiak

www.fotoramiro.com  
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68  
943 83 10 48

HAIKUR ETXAN HERRIARRIEN JANTZIAK

**ROSA**

GARBINE ARRILAGA  
ARIZAGA BARRIA, 2 - TEL. 942 12 19 43

100% BERSKOTUA FAMILIA UGAJENTZAT

**KATU MORIA**  
BILBAOARRIEN HIRI

ESTROPALARIZ, 10  
20510 ORIO  
TEL. 948 11 66 11

LORRIOTIK  
605 67 64 35

## » INKESTA

**Orietarrok gure ohiko erosketak Orion egiteko joera al daukagu?**

**64** erantzun jaso ditu galderak. **%64** baiezkotan da, **%31**k ezetz dio, **%5**ari bost axola zaio kontua eta **%0**k ez daki zer esan gai honen inguruan.

**HURRENGO GALDERA****Krisi garaian, borondatez egindako lana indartu beharra al dago?**

Erantzun ezazu [www.karkara.com](http://www.karkara.com) webgunean eta emailtza 338. Karkaran argataratuko dugu.

## » OSPAKIZUNA

**Zorionak Pepe eta Marina**

Mende erdia pasa da Pepe Moreno eta Marina Gonzalez ezkondu zirela, apirilaren 2laizan zen, hain zuzen ere, data seinalatua. Urrezko ezteiak ospatu dituzte, baina izan da ospatzeko beste datarik ere, maiatzaren 1arekin bete baitira 50 urte Oriora etorri zirela ere. Familiakoek pasa zuten ospakizun egun ederra dela-eta eskertzeaz gain zorionak eta muxu handi bana eman nahi diete Peperi eta Marinari.

## » ZORIONAK!

*Maialen Velascori*

**L**oriat & koloriak bloga martxan jarri zuela bi hilabete pasa dira eta edukiz bete-beteta mantentzen du KARKARA.COM-en daukan bere espazioa.

Eduki freskoa sartzea, orain arte KARKARAK ia tratatu gabe zituen gaiak tratatzea, blog dinamikoa jorratzea... Hori guztia lortu du Maialen Velascok denbora gutxian. Gainera, herriko hainbat boluntariori esker argazki saio ederrak ere egin ditu eta egingo ditu aurrerago ere.

Gure zorionik beroenak, beraz, Maialen Velascori, buuruan zuen nahia betetzeagatik eta KARKARARI halako freskotasuna emateagatik. Eta besteok ere badakizue, atea irekita duzue bloga egiteko!

**ANORGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**  
 -komertzial instalazioak - beira bikoitza  
 -segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak  
 -ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

tel/fax: 943 89 00 69  
 (Orriak bako. d. 20100 ZAKALIZ)

**URBIDE**

ITURGINTZA, BERGINTZA  
 GASA, BAINU, ERAKUSKETA

Iturrietatik, berretzeak, gure

**URANGA**  
 burdindegia  
 Opari, menaje eta errenintak

fer.uranga@euskalnet.net  
 Telefonax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

Aiako eta Oriako berri  
 AZKAR eta ARIN  
[www.karkara.com](http://www.karkara.com)



1967an, Michelin-en aurretik sartzea ospatzen. Ez zeuden ez *Urtain ez Trabuko*. FOTOTEKA

# Urtain arraunean Orion

## Oroimenaren kutxa

**B**oxeoan, errugbian eta arraunean ibilitako kirolari batek Orion aitortu zuen hiruretan gogorrena arrauna dela. Jose Manuel Ibar *Urtain*, boxeoan hasi aurretik, aizkoran eta harri jasotzen ibili zen, bizitzako ibilbidean artean goraka zihoala. Orduko herri-kirolari onena zen. Boxeoa utzi ondoren, *lutxa librean* ibili zen. Ordurako, al-dapa behera hasita.

Urtain 1943ko maiatzaren 14an jaioa zen. Beharbada, balearen egunean jaio izanak erakarrita-edo, bere kirol-ibilbideko pauso bat Orion

eman zuen. 1967ko udaberria zen, traineruak denboraldiko lehen entrenamendua egin zuen. Egun hartan, Ramon Arreseigor *Trabuko* zenaren agindupean, Arroako bi mutil eseri ziren txalupako tostant lehen aldiz, Urtain base-rriko Jose Manuel eta Martin Ibar anaiak. Entrenamendu hartara mugatu zen Orioko arraunean egin zuten bide laburra. Zergatik? Auskalo! Hurrengo urtean jokatu zuen Urtainek boxeoko lehen borrokaldia. Handik bi urtera, Europako txapelduna zen.

Urtainek ez zuen estropadarik jokatu sekula, *Trabuko* lehenengo besterik ez 1967ko Donostiako banderari. Irabazi ez, eta zurrumurruek eta zirrikaden garaia za-

baldu zen Orion bi estropaden arteko egunetan. Beste patroibat jarri zuten bigarren iganderako. *Trabuko* handik urte gutxira herria utzi eta Mutrikura joan zen bizitzera. Bukaera tristea izan zuen Orion, arraun munduan beste askok bezala. Askoz ere gordinagoa izan zuen Urtainek: 1992ko udan, Bartzelonako Olinpiaden bezperan bere burua bota zuen Madrilera bere etxetik behera, maldan beherako arrapaladari bukaera emanez.

Kirolean badira berez duen gogortasuna baino latzagoak; arraunean, eskuetako eta ipurdiko zauriak baino; boxeoan, ukabilkadak baino.

[ IÑAKI TURAIN ]

### » JAIOTAKOAK

- Ander Urkizu Munduate, Orion, apirilaren 26an.
- Julen Txintxurreta Goikoetxea, Orion, apirilaren 26an.
- Maialen Rivas Tamayo, Orion, apirilaren 21ean.
- Malen Rueda Iglesias, Orion, apirilaren 19an.
- Iraia Albizu Madariaga, Orion, apirilaren 18an.

### » EZKONDUTAKOAK

- Iñigo Aranguren Odriozola eta Estela Rojas Arregi, Orion, maiatzaren 4an.

### » HILDAKOAK

- Ez da hildakorik egon.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27**



**ITZIAR**  
kirolak  
Tel. 943 83 31 03

Jocana Murgiondo  
Aseguru-agenta  
ASEGURUAK  
Abeslari, 4- 2. esk.  
Tfnoa: 943 13 46 07

**KAIUA**  
Plater konbinatuak, botakak, hamburgesak...  
ANBARKO PORTUA 35, BEHEA TE: 943 043 030

943 572 870  
**KOASTA**  
Wifi zerbitzua  
Kopak, gau giro aparta...



# “Kotxea eta mekanikaria dira aurrez-aurre daudenak”

## Karen Odrizola

Auto-mekanikaria

*El conquistador del fin del mundo* saiotik egingo zaio askori ezagun Karen Odrizolaren aurpegia. Guk bere benetako aurpegia ekarri nahi izan dugu hona. Bere eguneroko jantziarekin, tailerreko buzo urdinarekin alegia.

### IKER GURRUTXAGA

#### Nolatan hartu zenuen mekanikari izateko erabakia?

Osabak karrozeria bat du, baina ez zen hori izan arrazoia. Batxilergoa bukatuta bi aurre-matrikula egin nituen: ingurugiro kimikan eta automozioan. Lehenengo aukeran talderik osatu ez zenez, bada, automozioa ikasten hasi nintzen.

#### Neska gehiago ba al zineten ikasketa berak egiten?

Nire promozioan ni izan nintzen bakarra. Elektromekanikan eta karrozerian beste bana baziren, baina gehiago ez lan munduan sartzea erraza egin al zitzaizun?

Bada, nik zorzea izan dut kontu horrekin. Bi urtez ikasten jardun eta gero, praktikak egitera Donostiako Mercedes

Goiko-Auto kontzesionariora joatea eskaini zidaten. Hiru hilabetez bertan jardun eta kontratua eskaini zidaten. Orduetik hona ia 9 urte pasa dira. Zorzea izan dut.

#### Nola hartzen dute bezeroek emakume bat tailerrean ikustea?

Nik lan egiten dudan tokian bezeroek ez dute tailerreko lana ikusten. Harreran egiten dituzte egin beharreko kontuak eta guk autoa baino ez dugu ikusten. Hortaz, ez dut arazorik izan alde horretatik. Dena dela batzuk etorri izan dira tailerrera eta batek edo bestek aurpegi arraroarekin begiratu izandu dit. Beste batzuk guztiz kontrakoa, neska izateagatik kotxea hobeto zainduko diedala pentsatzen dutelako-edo. Baina hori ere ez da horrela.

Personak gara, neska ala mutila izate-

ak berdin du gure lana egiteko. Kotxea eta mekanikaria dira aurrez-aurre daudenak.

#### Eta lankideekin arazorik izan al duzu?

Oso harrera ona egin zidaten lehen unetik eta oso gustura nago haiekin izan dudana hartu-emanetan. Arraroa egingo zitzaiela tailerrean emakume bat ikusita? Ziurrenik bai. Ni, gainera, oso neska isilana naiz. Lanean bere munduan egoten den horietakoa. Baina egia esanda, asko lagundu didate beti. Ez naute sekula baztertu edo ezjakinaren moduan tratatu. Lehen momentutik bat gehiago izan naiz.

#### “Batxilergoa bukatuta, ingurugiro kimika ikasteko talderik osatu ez zenez, bada, automozioa ikasten hasi nintzen”

“Lantokian ez naute sekula baztertu edo ezjakinaren moduan tratatu. Lehen momentutik bat gehiago izan naiz.”

#### Etxean nola hartu zuten mekanikari izan behar zenuela esan zenuenean?

Bada, babes osoa eman zidaten hasieratik. Benetan gustura ikasiko nuen hori ikastera bultzatu ninduten; nik bide hau aukeratu nuen. Aita, berriz, txorutzen. Pintura lanak egiten dituen arren, bere ametsa auto-mekanikaria izatea zen. Hartara, aitaren nahia alabak bete du.

#### Halako autoekin ikasten jarraitu behar dago, ezta?

Zalantzarik gabe. Datorren astean Madrileranoa ikastaro bat egitera eta duela hilabete ere izan nintzen. Etxeak hala eskatzen digunez, langileok ongi formatuta egon behar dugu.

#### Patagoniara joateko arazorik izan al duzulanen?

Bada, nire oporraldia ordurako uzteko eskatu nien. Aurretik aipatu izan nuen *Conquistador*-era joateko nahia nuela eta iaz, bero-bero eginda, sarrerako proba egin eta hartu egin ninduten. Oporraldia atzeratu, eta han joan nintzen Patagoniara. Esperientzia oso ona izan dut, eta, beno, oraindik ere telebistan jarraitzeko aukera izango duzue.

#### Noizarte?

Hori ezin dizuet esan; zuek saioa ikusi!



KARKARA

» AZOKA

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 831 527) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Saltzeko**

■ Kia Carens 1.8 monobolumena. Matrikula: 4405BVV. Tintatutako beirak, parrilla, kutxa eta barrutik erabat txukun. Asegurua 2014ko martxora arte. 2.500 euro. Tf.: 674 076 785  
 ■ Kale nagusian, 30 metro koadroko etxebizitza eta lokala salgai edo alokairuan. Tf.: 609 199 268

**Galdutakoak**

■ Haize bolada batek balakoian zintzilikatuta zegoen 2 urteko ume baten txaketa zuri bat eraman du. Mayoral markakoa eta Malen izenarekin. Aurkitu duenak mesedez udaltzainen bulegoan utzi edo deitu. Tf.: 669 461 449.

■ Aliantza galdu dut Orion. Inskripzioa: P.M.A.-A.J.M.A. 31/10/68. Norbait aukitu badu deitu. Tf.: 619 765 083.

**Alokatzeko**

■ Bi logelako etxebizitza alokagai Abaromendin, garajea barne. 70 metro koadro inguru. 650 euro. Tf.: 688 617 016

**Lan eskaera**

■ Udarako lan bila nabil, astelehenetik ostiralera. Umeak zaintzen aurrez aritutakoa. Tf.: 697 826 689 (Itziar)  
 ■ Edozein lan mota egiteko prest. Eguneroko 10:00etatik aurrera. Tf.: 666 116 641 (Nubis Rodriguez)

**Lan eskaintza**

■ Emakumea behar dugu haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tf.: 650 495 160 (Iñaki)

**Erosteko**

■ Lur zati bat erosiko nuke Aia, Orrio edo Zarautz inguruan. Borda baldin badauka hobe. Tf.: 615 790 965

**Bestelakoak**

■ Astelehenetik ostiralera Oriotik Hernanira joaten naiz autoz 07:30ean aterata. Usurbil eta Errekaldetik pasatzen naiz. Norbait aukitu badu partekatuko balu biltzen garenon artean banatu genitzake gasolina gastuak. [adurcampo@yahoo.es](mailto:adurcampo@yahoo.es)

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
10	05:32 eta 17:47	11:29 eta 23:51	
11	06:06 eta 18:20	12:03 eta	
12	06:39 eta 18:53	00:26 eta 12:37	
13	07:13 eta 19:27	01:02 eta 13:12	
14	07:48 eta 20:03	01:39 eta 13:49	
15	08:27 eta 20:43	02:18 eta 14:30	
16	09:11 eta 21:30	03:02 eta 15:15	
17	10:04 eta 20:18	03:53 eta 16:09	
18	11:08 eta 23:33	04:52 eta 17:13	
19	12:17 eta	05:56 eta 18:20	
20	00:42 eta 13:22	07:00 eta 19:24	
21	01:45 eta 14:19	07:58 eta 20:21	
22	02:40 eta 15:09	08:49 eta 21:13	
23	03:31 eta 15:56	09:38 eta 22:02	
24	04:19 eta 16:42	10:24 eta 22:49	

» ZAINTZAKO BOTIKAK

MAIATZA

- 10ean, Zulaika.
- 11n eta 12an, Iriarte.
- 13an, Etxeberria.
- 14an, Gallo.
- 15ean, Azaldegi.
- 16an, Zulaika.
- 17an, Iriarte.
- 18tik eta 24ra, Lasa.
- 25ean eta 26an, Zulaika.
- 27an, Larrañaga.
- 28an, Mutiozabal.
- 29an, Iriarte.
- 30ean, Zulaika.
- 31n, Muriozabal.

- Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orrio
- G. Artiano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilar txo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

**azkue**  
 Tf: 943 13 04 38

**Allianz**  
**Marigre Zaldua**  
 aseguru agentea  
 Ibai Ordo, 10 behe-oina  
 telefonoa: 943 13 47 60  
 faxa: 943 83 57 52  
 e-mail: marigr.zaldua@allianz.es

**agirresarobe**  
 PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK  
 OBRA BERRIEN PROIEKTUAK  
 ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK  
 FATXADEN ERABERRITZEAK  
 IDOGAILUEN PROIEKTUAK  
 GREMIO KOORDINAKUNTZA  
 INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ...  
 ITURRIBIDE 8, 5. BULEGDA, ZARAUTZ  
 BORJA AGIRRESAROBRE, ARKITEKTOA 635 731 722

**ANTILLA**  
 Mirasari Kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

**Alustiza Autobusak**  
 Alustiza Bidaiak S.L.  
 Autobus litera eta 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
 Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.  
 Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

**argine**  
 www.lason.net.com/argine  
 Tel. 943 13 48 89  
 25eko DESKONTUA FAMILIA UGARREN TXARTELAREKIN

**AIRIDATZA modas**  
 Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

**ARKAITZ Taberna**  
 Pintxoak, plater konbinatuak eta ogitarako mundialak  
 ABESLARI KALEA, 4 TEL: 943 83 16 57



## Hari musika-tresnen topaketa

Maiatzaren 11n, larunbatarekin, Hari topaketa izango da Orion Danbolin Musika Eskolak antolatuta. Euskal Herriko 15 musika eskolako 194 ikasle elkartuko dira biolina, biola, biolontxelo, eta kontrabaxua jotzeko. 18:00etan izango da kontzertua Ikastola aurreko plazan eta harizko tresnen musikak lagun izango ditu Danbolin Musika eskolako dantzariak, musika mintzairako eta kantuko ikasleak, Salatxo abesbatza eta bi bakarlari.

## Orio

### Erakusketa

■ Maiatzaren 13tik 23ra, Josetxo Perezen margoak, 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara, Kultur Etxean.

### Ipuin kontalaria

■ Maiatzaren 14an, ipuin kontaketa saioa Pello Añorgarekin, 5 eta 8 urte arteko umeentzat, 18:00etan, liburutegian.

### Garagardo azoka

■ Maiatzaren 24, 25 eta 26an, Orio Arraunketa Elkarteak antolatuta, Garagardo Azoka Herriko Plazan.

### Hitzaldia

■ Maiatzaren 14an eta 17an, Yam-Ya metodoarekin bakarrikako saioak; igarlea: Rocio Fatima Duarte, Mandalaren

lokalean. Izena emateko: 649 878 429 -Karmele-

### Traste zaharrak

■ Maiatzaren 15ean, traste zaharren bilketa, ohiko zabor ontzien alboan. Aurrez deitu 943 830 346 zenbakira zer atera behar duzuen esanez.

### Umeentzako ekintza

■ Maiatzaren 17an, txokolatjana eta jolasak, 17:00etan, Balea elkarte ondoko plazan.

### Bilerak

■ Maiatzaren 20an, San Pedro festak antolatzeko bilera, 18:30ean, Kultur Etxean.

### Informatika

■ Maiatzaren 23an, Gmail ikastaroa, 09:00etatik 11:00etara, KZ gunean. Aurrez izena eman.  
■ Maiatzaren 24an, Softonic

-deskargak doan egiteko webgunea- ikastaroa, 11:00etatik 13:00etara, KZ gunean. Aurrez izena eman.

### Musika

■ Maiatzaren 10ean, DJ gaua: frolicsome eta j.craf -alternative sounds-, 23:00etan, Kalakari tabernan.  
■ Maiatzaren 24an, Arrutiko intxaurrak Zarauzko bakarlariaren kontzertua, 22:00etan, Kultur Etxean.

### Tailerra

■ Maiatzaren 25ean, Mandala tailerra, 10:00etatik 14:00etara, Mandalara taldearen Antxiola kaleko lokalean.

### Bazkaria

■ Ekainaren leian, 1943an jaiotako bazkaria, 13:30ean, Herriko Plazan eta 14:00etan, Galerna jatetxean. Izena ema-

teko maiatzaren 25a baino lehen deitu. Tf.: 943 832 666 -Fernando Larrañaga-

## Aia

### Hitzaldia

■ Maiatzaren 13an, Estresa eliminatu hitzaldia; hizlaria: Simón Marmier sendagilea, 18:30ean, Kultur Etxean.

### Silo-bolak

■ Maiatzaren 14an, silo-bolen bilketa. Informazioa: Urkome (943 81 65 00) edo Igor (660 04 97 51).

### Erromeria

■ Maiatzaren 19an, erromeria Arkaitz Allur eta Idurre Arriola trikitilariarekin, 18:30etik 21:30era, Andatza auzoko Aristerrazu plazan.


### Podologia

■ Maiatzaren 25ean, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez deitu ordua hartzeko. Tf.: 943 13 11 44.

### Mendi lasterketa

■ Maiatzaren 19an, 10. Pagoe-ta Mendi Lasterketa, 10:00etan, Zarauzko Azken Portu auzoan hasita.

**Zaindu maite  
duzun hori**



**[www.karkara.com](http://www.karkara.com)**

**[www.berria.info/berriataldea](http://www.berria.info/berriataldea)**